008.-UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

008.- TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL

I.- XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Hernaniko udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.

Tasak ondoko zergagaia duten zergak dira: herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten erabilera publikoari atxikitako bestelako ondasunak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3 apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Esta Entidad Local, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico, establece y exige precios públicos por la utilización privativa o el aprovechamiento especial de los bienes de dominio público municipal especificados en las Tarifas del Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de la que aquéllos son parte integrante.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial del municipio de Hernani.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.

Las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público, así como de otros bienes afectos al uso público que se refieran, afecten o beneficien de modo particular al sujeto pasivo

III. SUJETO PASIVO

Artículo 4.

1.-Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular, conforme a alguno de los supuestos previstos en el artículo 20.2 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o aprovechamiento especial por entradas de vehículos a través de las aceras y por su

eta, orobat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartua tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zerikusia duten guztietan.

5. artikulua.

Lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek ordainduko dute tasa, eta lizentziarik ez badago, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6.- artikulua.

1.- Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak emango dira aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera.

2.- Salbuetsita egongo dira interes bereziko edo udal onurako ekintzak garatzeko beharrezkoak izango diren bide okupazioak. Interes bereziko edo udal onurako ekintzak Alkateak izendatuko ditu dekretu bidez, eta bertan, salbuespena onartuko du.

3.- Ez dira egongo tasa ordaintzera behartuta baina bai dagokion lizentzia lortzera:

a) Onura publikotzat hartutako fundazioak eta elkarteak, eta interes orokorreko helburuak dituzten entitateak, betiere Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan edota Udal Erregistroan izen emanda badaude, bere xede soziala betetzeari lotutako aldi baterako okupazio edo aprobetxamenduagatik.

b) Alderdi politikoak, talde politikoak, sindikatuak eta antzeko entitateak, beren xede soziala betetzeari lotutako aldi baterako okupazio edo aprobetxamenduagatik.

construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

3.- El Estado., las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

Artículo 5.

Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se beneficien del aprovechamiento.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 6.

1. La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

2. Estarán exentas las ocupaciones de dominio público necesarias para el desarrollo de actividades que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal. El Alcalde mediante decreto acordará la declaración y en el mismo acto aprobará la exención.

3.- No estarán obligados al pago de la Tasa, pero si a la obtención de la licencia correspondiente:

a) Las fundaciones y las asociaciones declaradas de utilidad pública y demás entidades que persiguiendo fines de interés general, consten inscritas en el Registro del Gobierno Vasco o en el Registro del Ayuntamiento de Hernani, por las ocupaciones o aprovechamientos temporales vinculados al cumplimiento de su objeto social.

b) Los partidos políticos, agrupaciones políticas, sindicatos y entidades análogas, por las ocupaciones o o aprovechamientos temporales vinculados al cumplimiento de su función social.

c) Udalaren jabari publikoaren aldi baterako okupazioak edo aprobetxamenduak Udalaren edo beste erakunde publiko batzuen babesa edo laguntza izan dezaten.

c) Las ocupaciones y aprovechamientos temporales del dominio público municipal que cuenten con el apoyo o la colaboración del Ayuntamiento o de otras entidades públicas

V. OINARRI EZARGARRIA

V. BASE IMPONIBLE

7. artikulua.

Artículo 7.

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, eranskinean jasotakoaren arabera.

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

VI. KUOTA

VI. CUOTA

8. artikulua.

Artículo 8.

1.- Zerga kuota finkatuko da tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz.

1.- La cuota tributaria consistirá en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.-Izaera orokorrez, eta ordenantzaren eranskinetan jasotako aprobetxamenduetako aplikatu beharreko zerga-kuota berezien kalterik gabe, honako hau izango da zerga-kuota erabakitzeko formula:

2.-Con carácter general, y sin perjuicio de las tarifas establecidas y recogidas en los anexos de la ordenanza, la cuota tributaria de la tasa estará determinada por la fórmula siguiente:

KT (kuota tasa)= OT (oinarrizko tarifa) x A (aprobetxamenduaren azalera) x I
(aprobetxamenduaren iraupena, egunetan)

KT (tasa cuota) = OT (tarifa básica) x A (superficie del aprovechamiento) x I (duración del aprovechamiento, en días)

3.- Oinarrizko Tarifa.- m2 –ko edo erabilera edo aprobetxamenduaren frakzioa eta eguneko Oinarrizko Tarifa (OT) 0,103 €-koa da.

3.- Tarifa básica.- la tarifa básica (OT) por m2 o fracción y día de utilización o aprovechamiento es de 0,103 €.

4.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

4.-Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Si los daños fueran irreparables, La Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-itzulketak

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

9. artikulua.

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exiji daiteke, edota, bestela, jarduera edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean: jarduera egiteko edo espedientea izapidetzeko dagokion ordainketa derrigor egin behar da.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu

Artículo 9.

1. La tasa por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2. Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la cuota, en los términos establecidos en el Anexo.

3. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

VIII. LIQUIDACION E INGRESO

Artículo 10.

Por la Entidad Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

No se exigirá interés de demora en los acuerdos de aplazamiento o fraccionamiento de pago que hubieran sido solicitados en período voluntario, siempre que se refieran a deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva y que el pago total de las mismas se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

IX. GESTION DE LAS TASAS

Artículo 11.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las

bakoitzean zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la norma Foral General Tributaria del territorio Histórico de Gipuzkoa.

12. artikulua.

Udal jabetza publikoa okupatzea baimenduko dion lizentzia eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da Udal Hazienda honekiko zordun ez izatea bere baliabide lokalak osatzen dituzten kontzeptuetariko ezeinetan.

Articulo 12.

Será condición inexcusable para poder obtener licencia que le autorice la ocupación del dominio público municipal, no ser deudor(a) de esta Hacienda Municipal por ningún los conceptos que integran sus recursos locales

13. artikulua.

1.-Tributu-arauen urratze arrunta izanda dira ondoren zehazten diren kasuak, eta era honetarako zigortuko dira:

Articulo 13.

1. -Son infracciones tributarias de carácter simple los supuestos que a continuación se detallan y serán sancionados de la siguiente manera:

1-1.- Okupatzeko lizentzia duenak lizentzia horretan mugatutako gune publikoa okupatzen badu, beharrezkoa den autolikidazioa aurkeztu eta ordaindu gabe, edota ordaindutakoagatik baimentzen zaion baino gune handiagoa okupatzen badu, alde batera utzita dagokion tasa ordaintzeko duen betebeharra, zigor hauek ezarriko dira:

1-1.- El titular de la licencia para la ocupación, si ocupa el espacio público delimitado en la licencia sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, o bien ocupando un espacio superior al que da derecho el abono realizado, independientemente de quedar obligado al pago de la tasa respectiva, será sancionado de la siguiente manera:

a) Lehenbiziko aldian, bete beharrekoak bete ez izanaz ohartaraziko zaio.

a) La primera vez será apercibido de su incumplimiento.

b) Bigarren aldian, 50 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako.

b) La segunda vez será sancionado con 50 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas.

c) Hirugarren aldian, 80 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da 6 hilabeteko epean.

c) La tercera vez será sancionado con 80 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 6 meses naturales.

d) Laugarren aldian, 175 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da urte beteko epean.

d) La cuarta vez será sancionado(a) con 175 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 1 año.

e) Bosgarren aldian eta hurrengotan, 300 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta lizentzia baliogabetzea.

e) La quinta vez y sucesivas será sancionado(a) con 300 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas y la revocación de la licencia.

1-2.- Gune publikoa okupatzen duenak dagokion autolikidazioa aurkeztu eta ordaindu gabe, eta lizentzia eskatu baina horretarako baimena ez izateak egoera larritzen duela kontuan hartuta, zigor hauek ezarriko dira:

1-2.- Quien ocupa espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar con licencia para la ocupación de dicho espacio aunque habiéndola solicitado, será sancionado de la siguiente manera:

a) Lehenbiziko aldian, 80 euro.
b) Bigarren aldian, 175 euro.
c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 300 euro.

a) La primera vez con 80 euros.
b) La segunda con 175 euros.
c) La tercera y sucesivas veces con 300 euros.

1-3.- Gune publikoa okupatzen duenak dagokion autolikidazioa aurkeztu eta ordaindu gabe, eta bide publikoa okupatzeko lizentzia ez izateak edota eskatua ez izanak egoera larritzen duela kontuan hartuta, zigor hauek ezarriko dira :

a) Lehenbiziko aldian, 175 euro.
b) Bigarren aldian, 300 euro.
c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 600 euro.

1-3.- Quien ocupa espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar ni haber solicitado la licencia para la ocupación de dicho espacio será sancionado de la siguiente manera:

a) La primera vez con 175 euros.
b) La segunda con 300 euros.
c) La tercera y sucesivas veces con 600 euros.

2.- Gainerako zerga-arauak urratzeagatik jarri beharreko zigorra sailkatzeko eta zehazteko, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotako sailkapena eta xehetasunak aplikatuko dira.

2. - Para el resto de infracciones tributarias, su calificación y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

X. DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza, con su Anexo, fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor el 1 de Enero de 2024 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

008.01.- ERANSKINA I

008.01.- ANEXO I

01 - IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEN APARKAMENDU ERRESERBA BIDE PUBLIKOAN	01 - ENTRADA DE VEHICULOS AL INTERIOR DE LAS FINCAS A TRAVES DE LAS ACERAS Y RESERVA DE APARCAMIENTO DE LOS MISMOS EN LA VIA PUBLICA.
Ibilgailuak espaloietan zehar finken barruko aldera sartzea eta horiek bide publikoan duten aparkamendu erreserba.	Entrada de vehículos al interior de las fincas a través de las aceras y reserva de aparcamiento de los mismos en la vía pública

a) Ibilgailuak espaloietan barrena sartzea (igarobide partikularrak, industria, garaje publiko eta kolektiboetarako igarobidea), ibi edo pasabide iraunkorra.			a) Entradas de vehículos a través de las aceras (pasos particulares, pasos de industrias, garajes públicos y colectivos), vado o paso permanente.
Toki bakoitzeko	9,55	€	Por plaza

b) Bide publikoan espazioak erreserbatzea, ibi edo pasabide iraunkorra.			b) Bide publikoan espazioak erreserbatzea, ibi edo pasabide iraunkorra.
Metro lineal edo zati bakoitzeko	37,30	€	Por cada metro lineal o fracción
c) Bide publikoan espazioak erreserbatzea, ibilgailua utzi nahiz aparkatzea debekatuta. Ordutegi mugatua.			c) Prohibiciones de estacionamiento y aparcamiento. Horario limitado.
Metro lineal edo zati bakoitzeko	18,70	€	Por cada metro lineal o fracción

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.Tasa honen xedea izango da espaloiak zeharkatuz ibilgailuek erabiltzen dituzten sarrera edo pasuak; eta, bide eta erabilpen publikoko hutsuneen erreserba bereziak, bidaiarientzako zerbitzu erregularrak edo diskrezionalak direnean, edo partikularren probetxurako ezar daitezkeen zerbitzu lineak hasteko edo amaitzeko direnean, betiere ibilgailuak eraikinetara eta orubeetara bide publikoetan zehar sartzeko pasabideen Ordenantza Arautzaileak ezarritakoaren arabera.

2.-Zerga ordaintzeko obligazioa sortzen da bide publikoan ibilgailuak sartzeko seinalizazioa jartzeagatik, nahiz eta sarbide hauek baimenduak edo inork utzitakoak izan, ibi izaera badute edo ez, eta zentzu honetan, sarrera ohikotasunez erabiltzen bada, honetarako bide publikoan debeku edo aparkaleku erreserbaturako seinaleak jartzen badira.

3.-b) eta c) ataletan seinalaturiko tarifak independenteak dira eta, beraz, a) atalean seinalatu diren sarrerekin, ibilgailuak espaloietan zehar egiten duten sarrerarekin alegia, konpatibleak.

4.-Gelditze eta aparkatze erreserbetan edo debekuetan eta dagozkien tasak ordaintzetik aparte, interesatuek trafiko seinaleen kostu osoa ordaindu beharko dute, hala nola, aipatu seinaleak jartzeak, mantentzeak eta birjarpenak ekar dezaketen gastua.

NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA:

1.- Será objeto de esta tasa la entrada o paso de vehículos a través de las aceras; y, La reserva especial de espacios en las vías y terrenos de uso público para principio o final de líneas de servicios regulares o discrecionales de viajeros o que se establezcan en beneficio de particulares, siempre conforme lo dispuesto por la Ordenanza reguladora de los pasos de vehículos a edificios y solares a través de vías públicas.

2.- La obligación de contribuir nace por el hecho de la existencia de señalizaciones en la vía pública, por la entrada de vehículos, hayan sido o no autorizados o concedidos, tengan o no construido vado, y en este sentido, cuando se utilice habitualmente para dicho fin y por la instalación de señalizaciones de prohibición o reserva de aparcamiento en la vía pública.

3.- Las tarifas señaladas en los apartados b) y c) son independientes y por tanto compatibles con las de entrada de vehículos a través de las aceras, señaladas en el apartado a).

4.- Siempre en las reservas o prohibiciones de estacionamiento y aparcamiento e independientemente del abono de las tasas correspondientes, habrán de satisfacer los interesados el coste total de las señales de tráfico, de su colocación y de su conservación o reposición.

Aipatutako kostuak ordaindu egin beharko dira interes partikularrak zein publikoak konkurrituko balute ere.	Estos gastos se satisfarán aunque concurriesen el interés particular y el público.
5.-Ordenantza honetan arautzen diren tasak zamatzen dituen aprobetxamendu bereziaren onuradun izateko, derrigorrezkoa izango da udal baimena eta ezin izango darik aprobetxamenduaren onuradun izaten hasi, aipatutako baimenik gabe.	5.- Para disfrutar de los aprovechamientos especiales gravados por la tasa que se regula en esta Ordenanza, será preceptiva la correspondiente licencia municipal, sin la cual no podrá iniciarse el disfrute del aprovechamiento.
6.-Aipatutako tasa kobraketa erroldaren bidez urteko ordainagiri bakar baten bidez egingo da, baimena ematen denean izan ezik, orduan zuzenean likidatuko baita eta kuota hastapenetik hasi eta abenduaren 31a arte dauden hilabete kopuruaren arabera (zatiketa ez inolaz ere titularitate-aldaketa eta bajei aplikatuko)	6.- El cobro de la tasa se hará en un único recibo anual mediante padrón, excepto el año de la autorización que se hará mediante liquidación directa y la cuota será proporcional al nº de meses existentes entre la fecha de comienzo de la ocupación hasta el 31 de diciembre (el fraccionamiento en ningún caso se hará extensivo a los cambios de titularizad y a las bajas).
7.- Tasa honen ordaiketan salbuetsita egongo dira :	7.- Estarán exentos de esta tasa:
a)Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Probintziaren, Udalaren edo bestelako Erakunde eta Instituzioen Zentro Ofizialak eta Bulegoak, betiere kasuan kasuko interes orokor eta publikoko arrazoiak tartean direnean eta Erakunde horiek baimena eskatu eta Ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean.	a) Los Centros Oficiales y Dependencias del estado, Gobierno Vasco, Provincia, Municipio o Entidades e Instituciones por las razones de interés general y público que en cada caso concurran y previa solicitud de dichos Organismos con cumplimiento de los requisitos que se prevén en esta Ordenanza.
b) Klinikak, Erietxeak edo Asistentzia Zentroak, anbulantzien sarrera eta irteeretarako.	b) Clínicas, Sanatorios o Centros Asistenciales, para entrada y salida de ambulancias.

02 - HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ENPRESEK ORDAINDU BEHARREKO TASAK, UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRA, HEGADA ETA LURRAZPIA OKUPATZEAGATIK.	02 - TASAS A ABONAR POR LAS EMPRESAS EXPLOTADORAS DE LOS SERVICIOS DE SUMINISTRO POR LA OCUPACIÓN DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE PROPIEDAD PÚBLICA MUNICIPAL.

Auzotegi osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatiko prezioa izango da aipatutako enpresek udal barrutian urtean eskuratzen duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ekoa	1,5	%	La tasa por las utilizaciones privativas o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro que afecten a la generalidad o a una parte del vecindario, será el 1,5% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal dichas empresas

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK:	NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA:
1.-Honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat:	1.- Tendrán la consideración de empresas explotadoras de servicio de suministros:
a) Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.	a) Las empresas suministradoras de energía eléctrica, agua o gas.
b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboz edo aprobetxamendu bereziz instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, osorik edo zati batean, erabiltzen badira.	b) Las empresas que presten sus servicios de telecomunicaciones disponibles al público mediante la utilización, total o parcial, de redes públicas de telecomunicaciones instaladas con utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, vuelo o subsuelo de las vías públicas municipales, con independencia de la titularidad de las redes o instalaciones.
c) Hornidura-zerbitzuak ematen dituzten beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.	c) Cualesquiera otras empresas de servicios de suministros que utilicen para la prestación de los mismos tuberías, cables y demás instalaciones que ocupen el suelo, vuelo o subsuelo municipales.
d) Hornidura-zerbitzuak banatu eta merkaturatzen dituzten enpresak.	d) Las empresas distribuidoras y comercializadoras de los servicios de suministros.
2.-Tasaren oinarritik honako fakturazio kontzeptu hauek kentzen dira: Kontagailuen alokairua, hartuen eta engantxe eskubideak eta BEZ.	2.- Se excluyen de la base de la Tasa los Conceptos de facturación relativos a Alquiler de Contadores, Derechos de Acometida y Enganche, así como el IVA.
3.-Tasaren likidazioa iraungitako hiruhilabeteko naturaletan egingo da, eta udalerriko fakturazio balio errealekin.	3.-La liquidación de la Tasa se efectuará por trimestres naturales vencidos y con los valores reales de facturación en el término municipal.
Likidazioa banaketa-enpresek fakturazioaren zerrenda bidali ondoren egingo da (zerrenda hori tarifaka emango da).	La liquidación se efectuará tras la remisión- por parte de la Empresa Distribuidora- de un listado de facturación por tarifas.
4.-Zerrenda horren aurkezpena hiruhileko naturala iraungi eta 30 egun naturaleko epean egingo da eta, une horretatik aurrera, exijitu ahal izango da.	4.- La presentación del referido listado se realizará dentro de los 30 días naturales siguientes al vencimiento del trimestre natural y desde tal momento, será exigible.

03 - BIDE PUBLIKOEN APROBETXAMENDU BEREZIAK	03 - OCUPACION DE TERRENOS DE USO PÚBLICO MUNICIPAL

3-1 BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEA			3-1 OCUPACION VIA PUBLICA CON INSTALACION DE

			TERRAZAS Y VELADORES
a) Mahaiak eta aulkiak jartzea m2 eta urte bakoitzeko			a) Mesas y sillas por m² y por año
1. Urtebeterako	31,20	€	1. Duración anual
2. Aldi bateko: udako denboraldia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra)	27,15	€	2. Duración temporal: temporada verano (1 de mayo hasta 31 de octubre)
b) Instalazio finkoekin m2 edo zatiko, urteko tasa	206,30	€	Por m2 o fracción con instalaciones fijas, tasa anual
3.2 GAINERAKO APROBETXAMENDU BEREZIAK.			3.2 OTRAS OCUPACIONES VIA PÚBLICA
a) Makina automatiko eta antzeko instalazioekin okupatzeko, aldi baterako edo behin betiko, unitatea (gehi 15,55 euro m2 urteko)	25,30	€	a) Ocupación con máquinas automáticas e instalaciones similares temporales o fijas, por unidad (más 15,55 euros por m2 y año)
b) Kutxazain automatikoak fatxadatik eskaintzen duten autozerbitzuak, instalazio bakoitzeko eta urteko	334,80	€	b) Aprovechamientos con cajeros automáticos en fachadas instalados en la línea de la fachada, por cada instalación y año
c)BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA KIOSKOEKIN, PRENTSA SALTZEKO POSTUEKIN, ONCEKO KABINEKIN ETA BESTELAKOAK:			c)OCUPACION DE LA VIA PUBLICA MEDIANTE LA INSTALACION DE QUIOSCOS, PUESTOS DE VENTA DE PRENSA, CABINAS DE ONCE Y VARIOS:
ONCEko kabinak	320,25 €	Urtean/ Al año	Cabinas ONCE
Argazkiak ateratzeko kabina	320,25 €	Urtean/ Al año	Cabina de fotos

d) BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA, HESI, SALGAI, ALDAMIO ETA ABARREKIN			d)OCUPACION DE LA VIA PUBLICA CON VALLAS,MERCANCIAS,ANDAMIOS, ETC
Salgaiak, hondakinak, lurra, harea, materialak: m2 edo zatika eta eguneko	2,55	€	Escombros, tierras, arenas, materiales de construcción, leña o cualesquiera otros materiales, por m2 o fracción y día
Hesiak, aldamioak edo bestelako instalazio egokiak: m2 edo zatika eta eguneko	0,60	€	Vallas, andamios o cualesquiera otras instalaciones adecuadas, por m2 o fracción y día
Obra-hondakinak eta obra-materialak biltegiratzeko edukiontzi metalikoak. m2 edo zatika eta eguneko	4,10	€	Contenedores metálicos para almacenar escombros y materiales de construcción, por m2 o fracción y día
Zutabe, eustaga edo eusteko beste hainbat elementu. Bakoitzeko eta hamabostaldiko edo zatika	8,50	€	Puntales, asnillas u otros elementos de apeo, por cada elemento y quincena o fracción
e)KALEAN SALMENTA POSTUAK:			e)PUESTOS DE VENTA EN LA VIA PUBLICA
Izozkiak, txurroak, buñueloak : hilero/metro lineala	15,85	€	Helados, churros, buñuelos: mes/metro lineal
Gaztainak (urriaren 1etik martxoaren 31 arteko aldia): hilero/metro lineala	10,55	€	Castañas (periodo desde 1 octubre a 31 de marzo): mes/metro lineal
Baimendutako beste artikulu batzuk (metro lineala edo zatika) eguneko	10,25	€	Autorizacion otros artículos (metro lineal o fracción) por dia
f) BIDE PUBLIKOAN NOIZBEHINKAKO OKUPAZIOAK JAIETAN (INAUTERIAK, SAN JOAN, SAN ANTONIO, AUZOKO JAIAK ETA EUSKAL JAIAK)			f) OCUPACION DE LA VIA PUBLICA EN PERIODOS FESTIVOS (CARNAVALES, SAN JUAN, SAN ANTONIO, FIESTA DE BARRIOS

			Y EUSKAL JAIAK)
Gipuzkoako Ferialarien Elkartearekin izenpetutako Hitzarmenaz kanpo geratzen diren postuak eta ordenantza honetako gainerako ataletan ez aurreikusiak *GAO2020/05/15			Puestos no homologables al Convenio suscrito con la Asociación de Feriantes de Gipuzkoa: No previstos en el resto de apartados *GAO2020/05/15
*Baimendutako produktuak: Bisuteria, larruzkoak, eskuz egindakoak, arropa... metroka: (lineal)			Productos autorizados: Bisutería, marroquinería, ropa, etc., por metro lineal:
-Eguneko	20,60	€	- Por día
-jaiek irauten duten egun guztiengatik	62,40	€	-Por el período festivo completo
-Hanburgesak, ogitartekoak, ... saltzea, metro lineal eta eguneko	43,45	€	- Venta de hamburguesas, bocadillos, etc., por metro lineal y día
g) JAI NAGUSIETAN ETA AUZOETAKO JAIETAN BARRAKA ETA JOLASGUNEEKIN OKUPATZEA: HITZARMENA GIPUZKOAKO FERIALARIEN ELKARTEAREKIN.			g) OCUPACION CON BARRACAS Y ATRACCIONES DE FERIA ENLAS FIESTAS PATRONALES Y DE BARRIOS: CONVENIO CON LA ASOCIACION DE FERIANTESDE GIPUZKOA
h) ZIRKO IKUSKIZUNAK EDO ANTZEKOAK			h) ESPECTACULOS CIRCENSES O SIMILARES
1.000 ikusleentzat baino gutxiago	259,50 €	Egunekо/Dia	Hasta 1.000 espectadores de capacidad
1.000 ikusleentzat baino gehiago	342,50 €	Egunekо/Dia	Más de 1.000 espectadores de capacidad
fiantza bat ezarriko da, udal teknikoen oniritzia jaso ondoren itzuliko litzatekeena.	832,40	€	Se establecerá una fianza que será devuelta una vez dado el visto bueno por

			los técnicos municipales
i) TELEFONIA MUGIKORRARENTZAKO OINARRIZKO ESTAZIOA JARTZEA			i) COLOCACION DE LA ESTACION BASE PARA LA TELEFONIA MOVIL
i) Telekomunikazio-azpiegitura propioak eta/edo hirugarrenenak instalatzea, muntatzea, ustiatzea, mantentzea, kontserbatzea, konpontzea eta aldatzea jabari publikoan, bai eta Telekomunikazio-zerbitzuak emateko beharrezkoak eta/edo komenigarriak diren elementu osagarriak ere: Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko honako biderkagai hauek hartuko dira kontuan: Onartutako tarifa, ustiapenaren denbora egunetan eta azalera metro karratuetan Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko honako biderkagai hauek hartuko dira kontuan: Onartutako tarifa, ustiapenaren denbora egunetan eta azalera metro karratuetan Ustiapenaren iraupena zerga epealdi bat baino gehiagokoa bada, epealdi bakoitzerako aplikatuko da tarifa.			i) La instalación, montaje, explotación, mantenimiento, conservación, reparación y modificación de infraestructuras de telecomunicaciones propias y/o de terceros en el dominio público, así como los elementos complementarios que sean precisos y/o convenientes para la prestación de servicios de telecomunicaciones: Para el cálculo del importe de la tasa se tendrán en cuenta los siguientes productos: Tarifa aprobada, tiempo de explotación en días y superficie en metros cuadrados Para el cálculo de la cuantía de la tasa se tendrán en cuenta los siguientes productos: Tarifa aprobada, tiempo de explotación en días y superficie en metros cuadrados Si la duración de la explotación es superior a un período impositivo, se aplicará la tarifa para cada período.
Onartutako tarifa	1,85	€	Tarifa aprobada

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK:

1.Mahaiak, aulkiak eta banakako elementuak instalatzeko, aurretiazko baimena beharko da, udalak emandako lizentziaren bidez, non plano batean zehaztuko baitira gehienez okupa daitekeen eremuaren mugak, gehienez zenbat mahai ipintzeko baimena ematen den, mahaien modulua

NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA:

1.- Para la instalación de las mesas, sillas y elementos aislados se requiere autorización previa a través de la correspondiente licencia municipal, donde en plano se determinará los límites de ocupación máximos establecidos, el número máximo de mesas que se autoriza a colocar, el

eta haien kokalekua.	módulo de mesas y su ubicación.
2. Behin lizentzia eskuratutakoan, haren titularrak denbora-bitarte baterako okupazio zehatz eta konkretu bat egin nahi duen unean, denbora-bitarte horri eta ipini nahi dituen mahaien, aulkien eta elementu bakartuen kopuruari eta metroei dagokien deklarazio likidazioa aurkeztu beharko du udalean, betiere lizentziaren terminoetara doitu beharko delarik.	2.- Una vez obtenida dicha licencia, la persona titular de la misma en el momento que desee realizar una ocupación específica y concreta y por un periodo de tiempo determinado, deberá presentar declaración-liquidación del periodo de tiempo, metros y numero de mesas, sillas y elementos aislados que desee emplear, y que deberá ajustarse siempre a los términos de la licencia.
3.Autolikidazioa ordaindu ondorez, tasaren erroldan alta emango da eta okupazioaren elementuak (aulkiak, mahaik, okupazioaren iraupena..) edota baldintzak aldatzen ez diren bitartean beti ere emandako udal lizentziaren arabera, tasa tributatzeko obligazioa urtero, edo seihilero sortuko da. Erroldak maiatzean onartuko da.	3.- Después de abonar la autoliquidación, se le dará de alta en el padrón de la tasa y mientras las condiciones ni los elementos de la ocupación (sillas, mesas, periodo ocupación..) no varíen y se ajusten a la licencia municipal otorgada, la obligación de abonar la tasa devengará cada años o, cada seis meses. Los padrones se aprobaran en mayo.
4. Ordaintze hori ezinbesteko baldintza da nahi diren mahaiak eta aulkiak ipini ahal izateko, eta baldintza hori ez betetzeak berekin ekarriko du Ordenantza honetan seinalatzen diren zigorrak aplikatzea, eta are emandako lizentzia baliogabetzea bera ere.	4.- EL abono de la tasa es requisito indispensable para poder colocar las mesas y sillas que se deseen y su incumplimiento conllevará la aplicación de las sanciones que se fijan en esta Ordenanza, que incluso podrán conllevar la revocación de la licencia establecida.
5. Tasaren zerga ekitaldia da lizentziak emandako iraupena. Behin okupazioa alta emanda erroldan, tasa ez da hainbanatuko, baja kasuetan ezezik (jarduera itxiera). Kasu hauetan tasaren kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, udalari bajaren jakinarazpena ematen zaion hilabetea barne.	5.- El periodo impositivo de la tasa es la duración de la ocupación concedida en la licencia. Una vez dada de alta la ocupación en el correspondiente padrón, la tasa no se prorrateara excepto bajas (cierre de la actividad). En estos casos la cuota de la tasa se prorrateará por meses naturales, incluido el mes al que corresponde el día en que se produzca la notificación al ayuntamiento de la baja de la actividad.
Jarduera hasteagatik okupazioaren alta berrien kasuetan ere, tasaren kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, okupatzeko baimena ematen duen lizentziaren egunaren hilabetea barne.	En los casos de alta por inicio de actividad nueva, la cuota de la tasa también se prorrateará por meses naturales, incluido el mes al que corresponde el día de la concesión de la licencia de ocupación.

04 - ASTEKO FERIA ETA UDALETXEKO ARKUPEETAKO SALTOKIEZ BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA	04 - OCUPACION DE LA VIA PÚBLICA CON LA FERIA SEMANAL Y CON LOS PUESTOS DE VENTA EN SOPORTALES DE LA CASA CONSISTORIAL

Baserriko barazkiak, arraultzak…	29,30	€	Productos hortícolas de caserío, huevos...

Baserriko beste produktoak (aperoak, hazi loreak, landareak…)	60,45	€	Otros productos de caserío (aperos, semilla, flores, plantas…)
Urdaiazpikoa, hestekiak oro har, gazta eta gurinak	243,05	€	Jamones, embutidos en general, quesos y mantequillas
Alimentazioa: fruta, fruitu lehorrak, pastak, olibak, bakaioloa, babarrunak, ekologikoak, txutxeak...	153,05	€	Alimentación: frutas, frutos secos, pastas, aceitunas, bacalao, alubias, productos ecológicos y chuches…
Edariak: ardoa, sagardoa, txakoli, likoreak…	288,10	€	Bebidas: vino, sidra, txakolí, licores…
Beste produktoak: arropa, zapatak, liburuak, sukaldeko menajea, kosmetika, jostailuak bisuteria	181,95	€	Otros productos: ropa, zapatos, menaje de cocina, cosmética, juguetes, bisutería

05 - UDALETXEKO ARKUPEETAN LOREAK SALTZEKO SALTOKIAK “SANTU GUZTIEN EGUNA”	05 - PUESTOS DE VENTA DE FLORES EN SOPORTALES DE LA CASA CONSISTORIAL “TODOS LOS SANTOS”

Loreak saltzea eguneko	69,35	€	Venta de flores, por día

06 - HERRIKO HAINBAT KALETARA SARTZEKO KONTROL SISTEMA	06 - SISTEMAS DE CONTROL DE ACCESOS EN DETERMINADAS VÍAS DEL MUNICIPIO

Sartzeko kontrol sistemarako txartela	10,25	€	Tarjeta del control de acceso

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Tasa hau ordaindu beharko da Hernaniko Udalerriko zenbait kaletara sartzeko kontrol sistema arautzen duen ordenantzan eta ordenantza hori garatze aldera ematen diren bandoetan ezarritako kaleetara sartzeko.

2.- Tasa hauen subjektu pasiboak izango dira Hernaniko Udalerriko zenbait kaletara sartzeko kontrol sistema arautzen duen ordenantzaren arabera eta araudi hori garatze aldera ematen diren bandoen arabera dagokion udal baimena eskatu behar duten pertsonak, zehazten diren kaleetara

NORMAS DE APLICACIÓN DE LA TARIFA:

1.- Será objeto de esta tasa el acceso a las vías municipales establecidas por la Ordenanza reguladora de los sistemas de acceso a determinadas vías municipales, así como los bandos que desarrollen dicha normativa.

2.- Son sujetos pasivos de estas tasas aquellas personas que conforme la Ordenanza reguladora de los sistemas de acceso a determinadas vías municipales, así como los bandos que desarrollen dicha normativa, deban solicitar la correspondiente autorización municipal para

sartzeko baimena lortu ahal izateko.	obtener el permiso de acceso a las vías municipales que se determinen.
3.- Baimenak berritu behar direnean tasa berriz ordaindu beharko da eta, txartela galdu edo hondatu delako beste berri bat egin behar izanez gero, orduan ere bai. Tasaren zenbatekoa izango da baimena edo txartela berritzerakoan indarrean dagoen ordenantza fiskalak ezartzen duena.	3.- Las renovaciones de los permisos, así como la perdida o deterioro de la tarjeta y su nueva expedición supondrán un nuevo devengo de la tasa, cuya cuantía será la que establezca la ordenanza fiscal en vigor en el momento de la renovación o nueva expedición de la tarjeta.
4.- Ordenantza honetan arautzen den tasak kargatutako aprobetxamendu bereziez baliatzeko beharrezkoa izango da dagokion udal lizentzia eskuratzea. Lizentzia hori gabe ezin izango da aprobetxamenduaz baliatzen hasi.	4.- Para disfrutar de los aprovechamientos especiales gravados por la tasa que se regula en esta Ordenanza, será preceptiva la correspondiente licencia municipal, sin la cual no podrá iniciarse el disfrute del aprovechamiento.
5.- Tasa hau independentea da, eta, horrenbestez, I eranskinean ezarritakoekin bateragarri: ibilgailuak espaloiak zeharkatuz sartzea, bide publikoan espazio erreserbak egitea eta autoa geratzeko eta aparkatzeko debekua.	5.- Esta tasa es independiente y por tanto compatibles con las tasas establecidas en el anexo I: entrada de vehículos a través de las aceras, reservas de espacio en la vía pública así como prohibiciones de estacionamiento y aparcamiento.
6.- Tasa hau autolikidazio bidez eskatuko da, udal baimena eman aurretik.	6.- La tasa se exigirá vía autoliquidación previo a la concesión de la autorización municipal.

07 - EREÑOTZUKO ENTITATE TXIKIKO PILOTALEKUAREN ERABILERA	07 - USO DEL FRONTON DE LA ENTIDAD LOCAL MENOR DE EREÑOTZU

Ordua hartuta dutenentzat, hilean (aldagelen eta dutxen erabilera barne)	50,00	€	Para aquellos que tienen solicitada hora previa, al mes (incluido el uso de vestuario y ducha)
Libre geratzen diren orduetan aldagelen eta dutxen erabilera barne, aldiko			Utilización del vestuario en horario libre, por uso
12 pertsona arte	12,00	€	hasta 12 personas
12 pertsonatik gorako taldeentzat	12,00 € + 1,00 €	12 pertsonatik gorako bakoitzeko	Grupos de mas de 12 personas
Giltzak itzuli bitarteko bermea	15,00	€	Fianza por la entrega de llaves

Argiarentzako fitxa bakoitza (ordu beteko iraupena)	3,00	€	Ficha para la iluminación (duración una hora)